

PRENTSA OHARRA: 2021.06.01

Ireki da zazpigarren Etxepare – LABORAL Kutxa Itzulpengintza Sariaren deialdia

- Hautagaiek ekainaren 25era bitarte (hau barne) edukiko dute euren itzulpen lanak aurkezteko aukera.
- Sari banaketa honek euskaratik egindako itzulpengintza balioan jartzea du helburu.

Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak elkarlanean sortutako itzulpengintza sariaren deialdia ireki da eta hautagaiek aurkezteko epea ekainaren 25era bitarte izango da zabalik. Ekimenak jatorriz euskaraz idatzitako literatura-lanen itzulpenak saritzea du xede, itzulpenak baitira euskal idazleak eta euren lanak nazioartean ezagutzera emateko zubia.

Nazioarteko itzultzaile eta argitaletxeak aurkeztu daitezke sarira, betiere ondorengo baldintzak betetzen badituzte: aurkeztutako liburua jatorriz euskaraz idatzitako eta argitaratutako literatura-lan baten itzulpena izatea, eta itzulpen hori 2020. urtean argitaratutakoa izatea. Eskabideari dagokionez, itzultzaileak berak, argitaletxeak edota liburugintza, literatura edo itzulpengintzaren arloko beste eragile batek egin dezake.

4.000 euroko sari bakarra emango da, itzultzaileak eta argitaletxeak erdibanatzekoa. Izan ere, irabazleak nortzuk diren erabakitzeko orduan aintzat hartzen dira bai itzulpenaren kalitatea, baita literatura-lana argitaratu duen argitaletxeak egindako sustapen plana ere. Halaber, 2.000 euroko laguntza jasoko dute irabazleek saria jasotzera Euskal Herrira etortzeko edota literatura-lana

argitaratu den herrialdean sustapen lanarekin jarraitzeko, hau da, aurkezpenak, publizitate kanpainak, etab. burutzen laguntzeko.

Sari banaketa ekitaldia Itzultzaileen Nazioarteko Egunaren inguruan (irailak 30) egingo da, Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak aurrerago adostuko duten lekuan eta egunean. Epaimahaia, berriz, itzulpengintzaren arloko, Etxepare Euskal Institutuko eta LABORAL Kutxako hainbat ordezkari osatuko dute.

Sariaren oinarriak www.etxepare.eus webguneko 'Deialdiak' atalean aurki daitezke gaurtik aurrera.

Aurreko urteetan itzultitako lanak:

2015

Isaac Xubín eta Kalandraka argitaletxea

Tempo de exilio (Joseba Sarrionandia)

Poesia antologia

Galegoa

2016

Nami Kaneko eta Hakusuisha argitaletxea

Mussche (Kirmen Uribe)

Eleberria

Japoniera

2017

Yaroslav Gubarev eta Anetta Antonenko

Behi euskaldun baten memoriak (Bernado Atxaga)

Eleberria

Ukrainera

2018

Amaia Gabantxo eta Center for Basque Studies (University of Nevada, Reno)

Harri eta Herri eta Maldan Behera (Gabriel Aresti)

Poesia

Ingelesa

2019

Ainara Munt Ojanguren eta Pol-len Edicions

Hilda dago poesia? (Joseba Sarrionandia)

Poesia antologia

Katalana

2020

Eider Rodriguez, Lander Garro eta Literatura Random House

Bihotz Handiegia (Eider Rodriguez)

Narrazioak

Gaztelania

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus